


HIRUKIAK


PROP. : Edozein ABC hirukian $AB \leq AC + CB$:
Bi puntuen arteko bide laburrena lerro zuzena da

PROP. : Hiruki baten **erdibitzaileak** (mediatrizeak) **zirkulu zirkunskribatuaren** zentroan ebakitzen dira.


PROP. : Hiruki baten angeluen baturak 180° balio ditu.



DEF. : Ber neurriko bi alde dituen hiruki bat hiruki **isoszelea** da.



DEF. : Ber neurriko hiru alde dituen hiruki bat hiruki **aldekidea** (ekilateroa) da.




PROP. : Hiruki bat isoszelea baldin bada, orduan ber neurriko bi angelu ditu (Hemen : $\widehat{ACB} = \widehat{ABC}$).

PROP. : Hiruki bat aldekidea baldin bada, orduan bere angeluek neurri bera dute : 60° .

DEF. : Angelu zuzen bat duen hiruki bat **hiruki zuzena** da, bere alde luzeena **hipotenusa** deitzen da.

Hemen : ABC hiruki zuzena **A puntuan** zuzena da.



PROP. : Hiruki bat hiruki zuzen bat baldin bada, orduan bere bi angelu zorrotzak osagarriak dira (Hemen : $\widehat{ABC} + \widehat{ACB} = 90^\circ$)

PROP. : (alderantzizkoa) Hiruki batean bi angelu zorrotzak osagarriak baldin badira, orduan hiruki zuzen bat da.

3. ariketa : R erpin nagusia duen RST hiruki isoszelean $\widehat{RST} = 45^\circ$. RST hirukia zuzena dela frogatu.

Aterabidea : RST hirukian badugu : $\widehat{RST} + \widehat{RTS} + \widehat{SRT} = 180^\circ$ edo $45^\circ + 45^\circ + \widehat{SRT} = 180^\circ$ beraz $\widehat{SRT} = 180^\circ - 45^\circ - 45^\circ = 90^\circ$
Orduan RST hirukia zuzena da R puntuan.

4. ariketa : IJK hirukian, $\widehat{IJK} = 60^\circ$ eta $\widehat{IKJ} = 30^\circ$. IJK hirukia zuzena dela frogatu.

Aterabidea : IJK hirukian badugu : $\widehat{IJK} + \widehat{IKJ} = 60^\circ + 30^\circ = 90^\circ$ beraz \widehat{IJK} eta \widehat{IKJ} angeluak osagarriak dira. Orduan IJK hirukia zuzena da I puntuan.